

“MU unibertsitate praktiko, euskalduna eta gertukoa da”

Oihan Vitoria 20 urteko arrasatearra da eta Ikus-entzunezko komunikazioa graduaren 3. maila ikasten dihardu MONDRAGON UNIBERTSITATEko Huhezi Fakultatean.



Zergatik aukeratu zenuen MU?

Bilatzen nuen guztia eskaintzen zidalako hautatu nuen MU: gertutasuna, lan merkatura irtenbideak, ikasgaiak euskaraz izatea. Erabakia hartzea zaila izan zen, beste unibertsitate batera joateko aukera ere banuelako. Edonola ere, aurrez unibertsitatean egondako ikasleekin hitz eginda, zalantza guztiak argitu nituen eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAn matrikulatzea erabaki nuen.

Bere ezaugarrietatik, zeintzuk dira gehien baloratzen dituzunak ikasle bezala?

Unibertsitateko ezaugarri guztietatik nabarmenduko nukeena euskalduna, praktikoa eta gertukoa dela da. Graduan zehar badira ingelesez eta gaztelaniaz

ematen diren materialak, baina guztiaren gainetik euskarazko hezkuntza sistema bermatzen du unibertsitateak. Eskertzen dudana zerbait klaseak praktikoa izatea da, hau da, gehienetan zerbait ezberdina egiten dugu irakaslearen sermoiak entzuten egon beharrean. Horrez gain, praktikak lortzerakoan enprekin dituzten harreman zuzenak baloratzekoak dira.

Nolako da irakasleekin harremana?

Irakasleekin harremana oso gertukoa da. Beti gure gainean daude eta ez dago irakasle eta ikasleen arteko ezberdintasun hori, garai batean bezala. Irakasleak klaseko kide bat gehiago dira eta euren eginbeharra, gure ezagutza handitzen laguntzea da.